

JAINKOAREN EXISTENTZIARI BURUZKO EZTABAIDA

Kepa Korta

Logika, Kognizio, Hizkuntza eta Informaziorako Institutua (ILCLI) eta Logika eta Zientziaren Filosofia Saila
EHU

- (1) Nik ez dut uste Jainkoa existitzen denik.
- (2) Nik uste dut Jainkoa ez dela existitzen.

Bistan da bi esaldi horiek ez dutela gauza bera adierazten. Lehenak ez du bigarrena inplikatzeko baina bai alderantziz. (1) bateragarria da (3)-rekin —horixe da agnostizismoa, hain zuzen ere. (2) (3)-rekin batuz gero, aldiz, kontraesana lortzen da:

- (3) Nik ez dut uste Jainkoa existitzen ez denik.

Lehenengoaren alde ez daukat froga positiborik aurkeztu beharrik; nahikoa da Jainkoa existitzen dela dioen ustearen aldeko oinarrien balioa ez onartzearekin. Bigarrenaren alde, ordea, beste zerbait gehiago ere behar dut: nire ustearen justifikazioa eskaini beharra daukat. Eta (4)-rekin berdin:

- (4) Nik uste dut Jainkoa existitzen dela.

Filosofiaren historian zehar asko eztabaidatu dira Jainkoaren existentziari buruzko uste hauen oinarriak (zalantzan jartzen zituztenentzako ondorio larriekin, egia esateko). Gaur egun, ordea, eskasak dira eztabaida horiek. ‘Gustu txarreko’tzat hartzen dute askok halako gai bati buruzko eztabaida arrazionala; giza banakoaren arlo pribatua zein erlijio-kultur aniztasuna erasotzen duen intromisio intolerantea. Arrazoia sar ez daitekeen eremu ukiezina litzateke Jainkoaren existentziari buruzko sinesmenarena.¹ Filosofiak, ordea, ez du inposatutako muga dogmatikorik sekula onartu. Ez du, definizioz, ezer utzi, ez du uzten, bere eztabaidagaietatik kanpo. Filosofiak beti izan du, eta oraindik ere badu, Jainkoaren existentziari buruzko eztabaidan zer esanik. Ez dugu hemen eztabaida luze horren historiaren laburpenik egingo, geure eztabaida propioa burutzea baita geure helburua; baina halabeharrez argudio zaharrak ere azalduko zaizkigu han-hemenka. Oraingoan, ordea, mugak —aldizkariaren arduradunek² ezinbestez zehaztutako espazioari bai, baina batez ere egilearen gaitasunari dagozkionak— gehiegizkoak izango dira gaiak merezi duenari justizia pittin bat egiten hasteko. Eztabaidan hasi aurretik, nolana ere, ‘Jainkoa

¹ Eztabaida hasi baino lehen bukatzeko modu ezaguna da hau. Justifikazio arrazionala behar duten usteen eta halakorik behar ez duten sinesteen artean bereizten da, lehenik, Jainkoarenganako sinesmena bigarrenaren artean kokatzeko, errebelazioz, Jainkoaren graziaz, lortutako sineste gisa. Honen aurrean, arrazoiak ez luke zer esanik (gogoratu, esate baterako, *Fides et Ratio* Joan Paulo II.aren entziklika). Esan dezagun bide batez, itxura guztien arabera, euskarak badituela bi hitz, ‘uste izan’ eta ‘sinetsi’, besteak beste, bi horiek bereizten dituen: adiera batzuetan behintzat, usteak ez bezala, sinesteak ez luke oinarri arrazionalaren beharrik.

² Eskerrik asko Jexuxmari Zalakaini gai honi buruz aritzeko gonbiteagatik. Eskerrak, halaber, Jesus Mari Larrazabali egindako ohar kritikoengatik, nahiz ez ditudan denak onartu, eztabaida luzeen ondoren.

existitzen da' perpausaren esanahia argitu behar dugu, zer eztabaidatzen ari garen, jakiteko.

1. Jainkoaren kontzeptua

Ayerrek dioen moduan³, badira batzuk 'Jainkoa existitzen da' proposizioa egiazkotzat jotzen dutenak eta aldi berean proposizio horren esanahia, giza gogoia gainditzen duela-eta, zein den ez dakitela esaten dutenak. Hala balitz, gizakiona gainditzen duen gogoaren jabeak bakarrik izango luke proposizio hori egiazkoa dela uste izateko gaitasuna eta orain ere eztabaidaren amaieran geundeke, hasi ere egin baino lehen. 'Jainkoa existitzen da' proposizioari buruzko jarrera izateko, proposizioak zer esan nahi duen jakin behar dela onartuta, 'Jainkoa'-k zer esan nahi duen argitu behar da lehenik. Alde batera utziko ditugu hemen Jainko ugari dagoela uste dutenen ikuspegiak. Jainko bakar batez aritzen direnek normalean ondoko atributuen jabe ulertzen dute: gorputzik gabekoa da (Jainko kristaua salbuespena da honetan, Aita eta Semearen identitatea onartuta, hogeita hamarren bat urtetan gorpuzduna eta gorpuzgabea izatearen aurkako propietateak onartzen baitzaizkio), ez da espazioan kokatzen (aurreko salbuespenarekin) baina espazioan jardun dezake, betierekoa da edo ez da denboran kokatzen (aurreko salbuespena berriz) baina denboran jardun dezake, munduaren sortzailea da eta bere zaindaria, ez da aldakorra, guztiahalduna da eta orojakilea. Ohi bezala laburbilduz, 'infinitua', oinarrizko atributuetan finitudasunaren mugetatik at baitago. Propietate hauetako bakoitzaren ulergarritasuna bera eztabaidagarria da eta are eztabaidagarriagoa elkarren arteko bateragarritasun logikoa. Baina bada beste propietate bat filosofiaren historian zehar eztabaida berezia sorarazi duena: Jainkoaren beharrezko existentzia.

2. Argudio Ontologikoa

Aostako (edo Canterburyko) Anselmori aitortzen zaio Jainkoa existitu bakarrik ez, halabeharrez existitzen dela *frogatzen* duen argudioa. 'Ontologikoa' esaten zaion argudio horren egitura hau da:

- a) Jainkoa perfektua da, kontzebitu daitekeen izakirik handiena. (Definizioz egiazkoa den premisa).
- b) Kontzebitua baino ez den izaki bat ez da existitu ere egiten dena bezain handia. (Definizioz egiazkoa den premisa).
- c) Jainkoa existituko ez balitz, ez litzateke kontzebitu daitekeen izakirik handiena. (Aurreko bien ondorioa.)
- d) Baina, definizioz Jainkoa kontzebitu daitekeen izaki handiena denez, Jainkoa existitzen da.

Argudio honen arabera ulertuta, Jainkoaren existentzia beharrezkoa da, haren definiziotik beretik ondorioztatzen baita. Argudioaren errefutaziorik ezagunena Kanti zor zaio. Argudioa ez da zuzena, izaki baten propietateen artean existentzia aipatzen delako eta, gaur egungo logika elementalak erakusten duen bezala, existentzia ez da propietate bat. Existentzia kuantifikazio logikoari lotua dago. Propietateak, aldiz, hizkuntza tipoaren izaera ez-logikoari lotuak daude. Zerbaiten existentzia baieztatzen

³ Ikus A.J. Ayer (1973), *The Central Concepts of Philosophy*. London: Weidenfeld & Nicholson, X. kapitulua, 'The claims of theology' titulua duena.

duen baieztapena ez da izaki baten propietate bat baieztatzen duenaren maila berekoa. Ez da zuzena, beraz, b) premisan egiten den bezala, Jainkoaren definizioan existentzia propietate gisa onartzea. Nolanahi ere, azken hau zuzena balitz ere, definizio hori betetzen duen kontzeptua ezeri aplikatzen zaiola, Jainkoa existitzen dela, beste kontu bat litzateke.

Aquinoko Tomas bera ez zettorren bat argudio ontologikoarekin baina Jainkoaren beharrezko existentzia defenditzen zuen, Jainkoa existentziarako arrazoia bere baitan zuen izaki bakarra zela argudiatuz (gogoratu ‘bost bideak’, bereziki bigarrena, hots, lehen kausarena). Gaur egungo irakurleari eztabaida eskolastiko hauek guztiak arrotzak gerta dakizkioke eta gaur egungo filosofian gaindituak daudela ere esan daiteke. Horregatik eztabaida arrazoiaren eremutik atera nahi duten bi jarrereri egingo diegu orain tartea.

3. Jainkoa eta ongia

Jainkoaren existentziari buruzko ustearen oinarri arrazionaletatik kanpora atera eta sentimendu erlijiosoaren eremura eramanez nahi izan dute askok eztabaida, Jainkoaren existentzia jokabide moralarekin lotuz. Tesi nagusia hauxe izan ohi da: Jainkorik gabe ez legoke giza jokabide moralik. Horretarako ematen diren argudioak nahiko ahulak dira. Hasteko, gizakiari jokabide amoral natural bat egozten zaio; naturaz, esaterako, izaki berekoiak ginatete; eta beste era batera jokatzea bestelako izaki goren baten eraginez bakarrik esplikatu litzateke. Baina gizakiak izaera natural hori duela egiazkoa balitz ere, Jainkoa gure sortzailea izanik, berdinean litzateke ezaugarri horren erantzule.

Jainkoa moralitatearen iturri gisa hartzeko, sinesle askoren ekintza onerako motibazioa ere aipatu ohi da. Egia da on asko egin dutela gizaki guztiok Jainkoaren seme-alaba berdinean garelako bezalako ideiek bultzatutako askok. Baina egia da baita ere Jainko ahalguztidunaren zigorrarekiko beldurrak bultzatutakoak ere ez direla gutxi sinesleen artean. Nolanahi ere, garbi dago Jainkoaren izenean egindako ongia handia dela, baina hori bezain garbi dago egin den kaltea ere tamainakoa dela. Ez dago, beraz, inondik inora jokabide morala Jainkoagan sinesten dutenekin eta jokabide immoralak sinesgabeekin lotzen direla esaterik. Nietzscheren Jainkoaren heriotzak, esanak esan, moralarekiko ondorio horixe zekarren: guztia da zilegi. Jainkorik gabe, erlatibismoa litzateke geratzen zaigun teoria etiko bakarra. Hori hala balitz, arrazoi indartsua litzateke Jainkoaren existentzia aldarrikatzeko. Existenzialistek ere antzeko argudioa zerabilten: mundua absurdoa omen da Jainkorik gabe eta existenzialismo ‘kristauak’ Jainkora jotzen zuen, besteak absurdoaren konpainian utziz. Baina zergatik ukatu giza arrazoiaren oinarritutako etika? Askatasuna, justizia eta berdintasuna ez al dira ba giza arrazoi ilustratu fedegabeak indartutako balioak?

Bestalde, Jainkoaren existentziaren usteak duen balio terapeutikoan oinarritzen dute batzuk haren egia. Ez dira falta testigantzak Jainkoagan sinesteak pertsonalki ekarri dien onuren berri ematen dutenak. Esperientzia erlijiosoak pertsona hobeak egin ditu, edo bizitzari esanahia ematen lagundu die, edo segurtasun psikikoa ematen die, bestela ikaragarri gertatzen zaien munduan. William Jamesen egiaren teoria pragmatista dago, jakina, argudio honen atzean⁴: uste bat egiazkoa da, ondorio

⁴ Ikus W. James (1907), *Pragmatism. A new name for old ways of thinking*.

onuragarriak baldin badauzka eta zenbat eta ondorio onuragarriagoak orduan eta uste erasoezinagoa. Uste baten egia (eta faltsutasuna) errealitatearekin duen korrespondentziaren (edo korrespondentziarik ezaren) menpe dagoela uste duenarentzat, aldiz, garbi dago argudio horrek ez duela balio. Ez du balio ezta ere kolektiboan edo herrien kasura pasatzen garenean. Esan daiteke, nahiz oso zalantzazkoa izan, Jainko bat edo batzuegan sinestea ona izan dela herrientzat; eta ez dela herririk izan historian, eta hau ez da zalantzazkoa, Jainkorik gabekoa. Horrek ez du tradizioz uste izandakoa besterik gabe egia bihurtzen. Tradiziorik onenak faltsutasunik hutsenean izan dezake oinarria.

Hasieran genioen bezala, Jainkoa existitzen dela uste duenak eman behar ditu existentzia horren aldeko frogak edo-ingeleseiz dioten bezala- *ebidentziak*. Eta zein dira froga horiek?

4. Existentzi frogak

Erreparatu, une batez, asmatutako ondoko elkarrizketari.⁵ Bi esploratzailek, Ak eta Bk, lore sail ederra topatzen dute basoan:

A: Hara, zein lore sail ederra. Lorezain finak eginga da hori, dudarik gabe.

B: Ez dut uste.

Ak eta Bk lorezainik azaltzen den zelatan gelditzea erabakitzen dute, baina egunak badoaz eta ez da lorezainik ageri.

B: Ikus dezakezunez, ez da lorezainaren arrastorik.

A: Bai, badago. Baina lorezaina ikusezina da.

B: Ba orduan, ipini dezagun alarma bati konektatutako hesi elektrifikatua eta gera gaitezen zain alarmak haren presentziaren berri ematen digun arte.

Hala egiten dute, baina ez dago inolako berririk. Ak, ordea, ez du iritzirik aldatzen:

A: Lorezaina ikusezina, intangiblea eta argi-indarrarekiko insensibla. Baina lorategia zaintzen du: ikusi nola loratzen den.

Denborarekin batera lehorrea dator. Loreak ximurtzen hasten dira.

B: Eta orain zer? Non dago lorezainaren loreenganako maitasuna?

A: Ez duela zaintzen ematen du, baina hori bere borondate askatasun mugagabearen froga da. Nik badakit maite duela eta ez duela ahazten.

B: Hau gehiegi da. Ze ezberdintasun dago lorezain ikusezin, intangible eta betiere hautemanezinaren eta existitzen ez den lorezain imajinario baten artean? Nola esan dezakezu lorezainik badela *dakizula*, edozer gertatuta ere, guztia haren existentziaren frogatzat hartzen baduzu?

Esploratzaileen parabola honetatik atera beharreko hiru irakaspen bururatzen zaizkit niri: Jainkoaren existentziaren aldeko ebidentzia faltari buruzkoa, bata, munduaren diseinuari buruzkoa, bigarrena, eta eztabaidaren izaera aporetikoari buruzkoa, azkena. B esploratzailearen azken bi galderek ongi azaltzen dute Jainkoaren existentziaren ebidentzia faltari buruzko kexa. Sinesleak ez dauka bereizterik existentziaren aldeko eta kontrako arrazoien artean; guztia hartzen baitu Jainkoaren existentziaren seinale

⁵ Elkarrizketa hau John Wisdomek ('Gods'. *Proceedings of the Aristotelian Society* 1994-45. Reprinted in A. Flew (ed.) (1951) *Logic and Language. First Series*. Oxford: Basil Blackwell) asmatua da. Flewk egindako bertsioan oinarritu zen Muguerza (1996, 'El problema de Dios en la Filosofía analítica', *Revista de Filosofía* 96-99: 291-366) berea egiteko eta nik, berriz, azken honen bertsioa hartu dut.

gisa. Gauzak horrela, A-rekin lorezainaren existentziari buruz eztabaidatzen jarraitzerik ez dagoela ondorioztatzea luke arrazoizkoena. Baina galde daiteke baita ere, eztabaida abiatzeko arrazoia bera zein den: Zerk pizten du lorezainaren existentziaren hipotesia? Garbi dago basoan aurkitutako lore sailaren sorrerak eta iraupenak eragiten dutela lorezainaren existentzia planteatzea kontuan hartzeko moduko hipotesi gisa. Lorezainaren hipotesia baieztatzeko frogak aurkitzen ez badira ere, eztabaidagai izaten jarraitzen du, B esploratzaileak *bestelako hipotesirik proposatzen ez duelako*. Jainkoaren existentzia ere munduko gertakari asko eta asko esplikatzeko azalpen naturalik ez zegoen garaian sortu zen. Esplikazio hoberik ezean, izaki goren baten parte hartzea zen munduko gertakari askorentzako azalpen bakarra. Hipotesi alternatiboak azaltzen joan diren neurrian, eta hauek baieztatu eta faltsatuak izateko gai diren hipotesiak diren neurrian, izaki supernaturalen arabera azalpenak tokia galdu du –zenbat *mirari* onartzen ditu gaur egun baita fededunak ere?-. B esploratzaileak, beraz, A-ren hipotesia gaitzesteaz aparte, badu beste argudio indartsu bat bere alde: loreen sorrera eta iraupenari buruzko hipotesi naturalak proposa ditzake, horiek frogatzeko nahiz faltsatzeko *ebidentziak* aurkeztu, hau da, esplikazio natural bat kontrajar diezaioke ezer gutxi esplika dezakeen lorezain hautemanezinaren hipotesiari. Laburtuz, mundua esplikatzeko ez dugu, gaur egun, disenatzaile nagusi baten hipotesi frogagaitz baten premiarik.

Baina elkarrizketari hel diezaiokegu beste ikuspuntu batetik ere. A eta B-ren arteko elkarrizketak *aporia* batera garamatza: ez dago arrazoia bati edo besteari ematerik. Izan ere, elkarrizketak beste amaiera bat du. A-k hau erantzuten dio B-ren azken galderari:

A: Ez, ez dakit. *Sinetsi egiten dut* hura badela.

B: Ah! Fedea! Hori beste kontu bat da.

Antza, auziak ez du soluziorik: A-k ezin du lorezainaren existentzia *frogatu* eta B-k ere ezin du lorezainaren inexistentzia *frogatu*. Honen arabera, Jainkoa badela uste duenak eta uste ez duenak, biek daukate pareko justifikazioa euren jarreretan. Eta hau da –jarrai dezake argudioak- eztabaida filosofiko nagusiekin gertatzen dena. Har, esate baterako, errealitatearen izaerari buruzko errealismoa eta idealismoaren arteko eztabaida; edo ezagutzari buruzko jarrera horiexen (eta eszeptizismoaren) artekoa. Filosofiaren historia jarrera horien arteko eztabaida gisa uler daiteke, erraz asko; eta horretatik guztiagatik irakaspenik atera badaiteke hau da: eztabaidak ez du amaierarik, inork ezin duelako bere jarrera *frogatu* edo aurkakoa faltsua dela *frogatu*. Hori horrela izanik, berdin justifikatua dago errealista ontologikoa zein idealista. Hautu pertsonalaren kontua da.

Hasteko, ez daukagu errealismo/idealismoaren eztabaidari buruzko ondorio hori onartu beharrik. Errealismoa (edo idealismoa nahiz eszeptizismoa) ezin da frogatu, hori garbi dago. Baina ez da egia jarrera guztiek justifikazio maila bera dutenik. Errealismoa ez da teoria bat –horregatik ez da frogatu ala faltsatu daitekeena-, gure mundu ikuskera osoaren oinarrian dagoen jarrera bat baizik. Guztiok, idealistak eta eszeptikoak barne, suposatzen dugu badela mundu bat hor, gugandik, gure esperientzia, gogo eta hizkuntzagandik independentea dena. Gure eguneroko jokabideak, hitz egiteak berak auresuposatzen du hori; hitzek errealitate horri erreferentzia egiten diotela auresuposatzen dugu. Era honetako auresuposizioak ez dira nahitaez egiazko; baina argudio benetan garrantzitsuak beharko genituzke errealismoa abandonatzeko. Idealismo edo eszeptizismoarekin ez da hori gertatzen,

alderantziz; oinarrizko mundu ikuskeraren kontrako jarrerak dira horiek, aldeko argudio indartsurik ezean, seriooki eutsi ezin daitezkeenak.

Eta non kokatu behar dugu Jainkoa existitzen dela dioen ustea? Ba al du tokirik gizaki guztion eguneroko bizitzako oinarrizko jarrera horien artean? Oinarrizko jarrera hauek zeintzuk diren esan beharko dugu lehenago. Gutxienez hauek⁶:

- Bada mundu erreal bat gugandik independentea dena, gure esperientzietatik, gogo, ezagutza eta hizkuntzatik ontologikoki independentea.
- Mundu horren pertzepziarako modu zuzena daukagu gure zentzuen bitartez, bereziki ukimen eta ikusmenari esker.
- Gure hizkuntzako hitzek esanahia daukate. Esanahi horien bidez munduko objektu errealei buruz hitz egin dezakegu.
- Gure baiezen egiazko ala faltsu izan ohi dira, munduko gauzak izateko moduarekin, hots, gertakariekin duten korrespondentziaren arabera.
- Kausazioa munduko gertaeren arteko erlazio erreal da.

Zerrenda honen osagai bakoitzari buruzko xehetasunak alde batera utzita, Jainkoaren existentziari buruzkorik ez dugu sartu, gizakion eguneroko bizitzan ez baita horrelako auresuposiziorik egiten. Gure hizkuntzako hitzen esanahiek mundu erreal bat auresuposatzen duten moduan, ez dute Jainkorik auresuposatzen. Komunikazioak norbera ez den subjektuen existentzia auresuposatzen du, baina ez du Jainkoarena auresuposatzen; egiaren nozioak errealitate independente bat auresuposatzen du, ez ordea Jainkoarena, eta abar. Errealismo ontologikoa hitz egiten hasi orduko egiten dugun auresuposizioa da, Jainkoaren existentzia ez. Zein da, beraz, Jainkoaren existentziari buruz hasieran aipatzen genituen lau usteen arteko arrazoizkoena?

- (1) Nik ez dut uste Jainkoa existitzen denik.
- (2) Nik uste dut Jainkoa ez dela existitzen.
- (3) Nik ez dut uste Jainkoa existitzen ez denik.
- (4) Nik uste dut Jainkoa existitzen dela.

Eztabaidaren ondorioak laburtuz, (4)-ri eusteko arrazoiak gero eta ahulagoak dira. Eztabaida eskolastikoak gainditu dira, ez dago (4)-ren aldeko ebidentziarik, eta, aldiz, hipotesi hobeak daukagu, oinarrizko mundu ikuskerarekin bat datozenak eta ebidentzian oinarrituak (4)-k 'esplika' zezakeen oro esplikatzen dutenak. Horrek guztiak (1)-erako justifikazioa ematen digu. Baina, horrez gain zer? (1) eta (3) onartu, hots, agnostizismoa? Ala (2) edo ateismoa? Zuhurtasunak lehenengo aukerara bultzatzen gaitu (gogoratu Russelli buruzko anekdota⁷: galdetu zioten "Eman dezagun erabat oker izan zarela Jainkoaren existentziari buruz. Eman dezagun istorio osoa egiazkoa dela eta San Pedroren aurrera iristen zarela. Bizitza osoa Jainkoaren existentzia ukatzen aritu ondoren, zer esango zenioke...Hari?" Eta Russellek erantzun: "Tira, Harengana joan eta esango nioke, 'Ez diguzu nahikoa ebidentziarik eman!"). Ateok uste okerrari eusteko arriskua du; azkenean, berak ere ez du (2)-ren edukiaren frogarik. Baina, sinesleak ez bezala, justifikazioa badu uste horrentzat eta egiazkoa

⁶ Ikus J. R. Searle (1999), *Mind, Language and Society. Philosophy in the Real World*. London: Weidenfeld & Nicolson, 1. kapitulu.

⁷ Searle lekuko izan zen eta aipatu liburuko kapitulu horren amaieran jasotzen du bere bertsioa.

dela uste izateko arrazoi gehiago dauzka (4) uste duenak baino. (1) eta (3)-ri eusten diotenak, agnostikoak, ez dira sekula okertuko, baina, (2) eta (4)-ri buruzko juizioa erreserbatuz, auzi honetan uko egiten diotelako egiazko ala faltsu izan daitekeenari eusteari.